



IDEIA ARRILUZE

Gure ideia gurdi adimendu bat sortzea da, horretarako ondorengo ezaugarriak edukitzea egokiena dela uste dugu. Lehenengoz, pantaila intelijentea edukitzea ezaugarri garrantzitsua da. Sistema sinple eta garbia, biztanleria nagusiak ondo ulertzeko sistema elektronikoa.



Ilido beretik, ahozko sistema intelijentea laguntza handikoa izango zen. Gure nagusiek agian ez dakite pantaila taktil bat erabiltzen baina, ahozko sistemarekin laguntza handia lortuko genuke bakarrik hitz egiten edozein lekura ailegatzeko.



Bezeroei erreztasuna emateko, Supermerkatuei proposatuko genioke, kontu elektronikoa edo profil bat sortzea. Han ikusi ahal genuke zeintzuk diren aurretik egindako erosketak. Eta gure etxean egindako zerrenda sartu ahal genuke eta ondoren supermerkatuara heltzean gure profila sartu eta ibilbide azkarrena egingo luke app-a.





IDEIA ARRILUZE

Zure profila bete eta gero, erosketako lista etxean egin eta supermerkatuara ailegatzean gurdia hartzean; bakarkako kontua hasi eta automatikoki erosketak ibilbidea egingo dizu. Ibilbideak aurretik aukeratutako guztia non dagoen irudikatuko du. Horrela denbora eta duda gutxitzea lortzen dugu. Supermerkatuko markarekin elkarlanean arituko gara app-an supermerkatuari mesede egiten dion publizitatea sartuko dugu. (eskaintzak, marka zuriko produktuak, denden kokapena...). Produktuen eskaintzak app-an sartuko dira. Supermerkatu bakoitza erabili ditzake nahi duen publizitatea eta horrela erakarriko diogu publizitate merkea eta zuzena delako.



Hozkailu bat ere izango du gurdia. Horrela, izoztuak, izozkiak edo jogurtak erosteko orduan, bertan utz daitezke. Bezero askok arazoak dituzte produktuak urtzearekin, horrela ez zen gertatuko.



Gurdi gehienak metalezkoak eta plastikozkoak izaten dira. Guk plastiko birziklagarria erabiltzea pentsatu dugu; horrela, metalaren erabilera eta horrek dakarren kutsadura aurrezten ditugu, eta ingurumena ere kontuan hartzen dugu, eta ahalik eta gutxien kutsatzen saiatzen gara.

